

GOBERNU BATZARRA

2014. 10.17

Alkatea:

Ibai Iriarte San Vicente

Zinegotziak:

Hasier de los Rios Soraluze
Rosa M. Urkola Irigoien

Beh. Beh. Idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea.

Kontuhartzaitzako Teknikaria:

Paulino Alonso Eraso.

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko urriaren 17an, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko:

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-Aldaba eta Urkizu auzoko hitzarmenak.

3.-2014 urritik 2015ko iraila bitartean Beotibar kafetegiaren hileko kanona.

4.-2014 urritik 2015ko iraila bitartean Fronton Jatetxearen hileko kanona.

5.-Bilketa exekutiboaren kontratuaren luzapena.

6.- lurreamendi egoitza. Iraileko faktura.

7.- Ikastetxeei mantenu diru laguntzak.

8.- Kanpoko ikasleeei diru laguntza.

9.-Xoks osagaiak dendari euskaraz errotulua jartzeagatik diru laguntza.

10.-31/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko urriaren 10ean egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Aldaba eta Urkizu auzoko hitzarmenak.

Ikusiz, Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismoa batzordeak 2014ko urriaren 14ean egindako batzordearen proposamena, Tolosako Udalaren eta Aldaba eta Urkizu auzoen arteko hitzarmena sinatzeko, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-Tolosako Udalaren eta Aldaba eta Urkizu auzoen arteko hitzarmena onartzea eta hitzarmena sinatzeko eta beharrezkoak diren izapideak burutzeko Alkatea fakultatzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea, Kontuhartzaitzari eta Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismoa Departamentuari.

3.- 2014 urritik 2015ko iraila bitartean Beotibar kafetegiaren hileko kanona.

Kontuhartzaileak egindako txostena ikusirik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Juan Luis Izagirre Erasuni 2014ko urritik 2015ko iraila bitartean Beotibar kafetegiaren hileko kanona % 0 igotzea. Beraz, 2.326,23 eurokoa izango da hileko kanona.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

4.- 2014 urritik 2015ko iraila bitartean Fronton Jatetxearen hileko kanona.

Kontuhartzaileak egindako txostena ikusirik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Maidonoa jatetxea, S.L.,ri 2014ko urritik 2015ko iraila bitartean Fronton jatetxearen hileko kanona % 0 igotzea. Beraz, 996,96 eurokoa izango da hileko kanona.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

5.- Bilketa exekutiboaren kontratuaren luzapena.

2011ko ekainaren 8ko 2011/1109 Alkatetza Dekretuaren bidez, kontratatzeko adjudikazio prozedura arautzen duten baldintza administratibo partikularrak, prozedura i rikiaren bidez egin zena, onartu zen.

Zegokion prozedura tramitatua, adjudikazioa 2011/1858 Alkatetza Dekretuaren bidez egin zen, 2011ko urriaren 6an, Gesmunpal, S.A.ri.

2011ko urriaren 14an sinatu zen kontratua Tolosako udalaren eta Gesmunpal, S.A., enpresaren artean.

Aipatutako kontratua, bilketa exekutiboa eta trafikoko isunen kudeaketa arloan aholkularitza eta lankidetzaz zerbitzuaritza dagokiona, 2014eko urriaren 21ean bukatzen da. Baina, urtebetetez luzatu daiteke kontratua Gobernu Batzordeak espresuki horretarako hartutako erabakiaren bidez.

2014ko irailaren 26an, Gesmunpal, S.A., enpresak aipatutako kontratua luzatzeko proposamena eskatu du.

Aipatutako kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA: GESMUNPAL, S.A.,ri beste urtebetetez luzatzea, aurreko kontratuan sinatu ziren baldintzak mantenduz, 2015eko urriaren 21 arte, bilketa exekutiboa eta trafikoko isunen kudeaketa arloan aholkularitza eta lankidetzaz zerbitzua eskaintzeko.

BIGARRENA: GESMUNPAL, S.A.,ri ondorengo bi ziurtagiri hauek eskatzea:

* Zerga obligazioak egunean beteta izatearen ziurtagiria.

*Gizarte Segurantzako obligazioak beteta izatearen ziurtagiria.

6.- lurreamendi egoitza. Iraileko faktura.

lurreamendi egoitzak iraileko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- lurreamendi egoitzari ordaintzea ekaineko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, 29.805,93 €-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 1.693,80 €
Elbarrien defizita: 28.112,13 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

7.- Ikastetxeei mantenu diru laguntzak.

Tolosako eskoletan banatzen den mantenuko diru laguntza Tolosan erroldatutako ikasle kopuruaren arabera egin du Euskara eta Hezkuntza batzordeak eta 2014. urteari dagokion banaketa onartu. Beraz, Gobernu batzarrak, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aipatu banaketa onartzea, ondoren aipatzen den eran:

<u>Ikastetxea</u>	<u>H.H. eta L.H.ko Tolosako ikasle kopurua</u>	<u>Diru kopurua ikasleko</u>	<u>Diru kopurua</u>
Hirukide Ikastetxea	650 ikasle	30,11 € ikasleko	19.571,5 €
<u>Laskorain</u> Ikastola	944 ikasle	30,11 € ikasleko	28.423.94€
OROTARA	1.594 ikasle		47.995,34 €

BIGARRENA.- Ikastetxeei jakinaraztea diru laguntza jasotzeko ekarri beharko dituztela faktura originalak edota berauen fotokopia konpultsatuak, honako kontzeptuei lotutakoak: atezaina, edifizioen konponketa arruntak, erregaiak, ura, argia eta garbiketa.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Euskara eta Hezkuntza departamentuari, Kontuhartzaileari eta aipatu diren ikastetxeei.

8.- Kanpoko ikasleeei diru laguntza.

Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ondorengo koadroan Udal euskaltegitik kanpo ikasten aritutako euskara ikasleei diru laguntzak ematea:

IZEN ABIZENAK	DIRU LAGUNTZA
A. A. O.	295,0 euro
C. Z. X.	125,0 euro
H. O. M.	125,0 euro
L. T. B.	344,0 euro
L. S. M. J.	347,5 euro
M. I. A.	422,5 euro
M. T. A.	202,0 euro
M. C. J. M.	125,0 euro
O. P. I.	295,0 euro
R. C. M.	125,0 euro
S. A. M. P.	202,0 euro
Z. Z. A.	254,0 euro

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

9.- Xoks osagaiak dendari euskaraz errotulua jartzeagatik diru laguntza.

“Xoks osagaiak” dendak diru eskaera egin du errotulu nagusia euskara hutsean jarri duelako, eta Euskara eta Hezkuntza batzordearen aldetik aipatzen da dendak baldintza guztiak betetzen dituela diru laguntza jasotzeko.

Hortaz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 175,40€-ko diru laguntza ematea “Xoks osagaiak” dendaren titularrari.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Euskara eta Hezkuntza departamentuari eta interesatuari.

10.- 31/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **31/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **75.646,62€**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **31/2014** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:00etan.

ALKATEA

Beh. Beh. IDAZKARIA